

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZAMBRANAKO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko 2022ko zerga kobratzea

Nik, Aitor Abecia Jimenez de Aberasturik, Zambranako Udaleko alkate-lehendakariak, hau jakinarazten dut:

2022ko urriaren 15etik abenduaren 15era bitartean, borondatezko epean ordaindu ahal izango direla jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2022ko ordainagiriak:

1. Ordaintzeko epea.

Borondatezko epea: 2022ko urriaren 15etik abenduaren 15era.

Betearazte aldia: 2022ko abenduaren 16tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

2. Ordaintzeko tokia eta modua.

Banketxeetan helbideratuta dauden ordainketak: aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, oraindik helbideratze kontu berbera badute. Hala ez bada, udalari jakinarazi beharko zaizkio kontu korrante berriari buruzko datuak. 2022ko urriaren 10a baino lehen.

Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez duten zergadunek horretarako bidalitako ordainketa gutunarekin egin beharko dute ordainketa, banku erakundeetan, Eusko Jaurlaritzaren ordainketa pasabidearen bitartez edo udal bulegoetan, indarrean dagoen aurrez aurreko arreta ordutegian.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Zambrana, 2022ko irailaren 15a

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI